

Irudia • Donostia



Kuartelen ate irekien aurrean, kexu

Espainiako Gobernuak Defentsa Ministerioak ate irekien eguna antolatu zuen atzo bere agindupeko kuartel militarretan, eta horrek talde antimilitaristen protestak egin zituen. Donostian, Loiolako kuartelaren aurrean bildu zen Bake Ekintza Antimilitarista elkarteak. Batetik, nabarmendu zuen ate irekien eguna egitea «alferrrikako» gastua dela, eta, bestetik, gogora ekarri zuen Defentsa Ministerioa eragozpenak jartzen ari dela Urumearen inguruko hirigintza egitasmoa garatzeko. Egun kuartelak hartzen dituen lurrak uzteko, Ministerioak Donostiako Udalarai eskatua dio bere gain har dezala beste kuartel bat eraikitzeak kostua —100 milioi euro inguru, elkartearen arabera—. Espainiako armadak Euskal Herrian dituen beste kuartel batzuetan ere izan ziren protestak; Araban, Arakako kuartelaren aurrean, hainbat pertsonak eskatu zuten natur parke bihurtzea inguru hori, baita gastu militarra asmo sozialetara bidera dezan ere. JUAN CARLOS RUIZ / FOKU

Epailleak espetxera bidali du Galdakaoko ustezko hiltzailea, baina ospitalean dago

BILBO • Epailleak espetxera bidali zuen herenegun iluntzean Galdakaoko (Bizkaia) ustezko hiltzailea, 33 urteko gizonezkoa. Ertzaintzak atxilo hartu zuen, amaren bikotekidea hiltzea eta ama larriki zauritzea leporatuta. Eusko Jaurlaritzako Seguratasun Sailak jakinarazi duenez, Basurtuko ospitalean dago (Bilbo) espetxeratzeko agindua izan arren. Haren ama ere ospitalean dago, egonkor.

308

BIZKAIAKO ALDUNDIRAKO ESKAINTZA PUBLIKOKO LEKUAK.

Bizkaiko Foru Aldundiko administrazioari 308 lanpostu eskuratzeko azterketak egin zituzten atzo BECen (Barakaldo); proba teorikoa eta praktikoa egin zituzten. Diputazioak inoizko lan eskaintza publikorik handiena antolatu du: guztira 600 postu baino gehiago eskaini ditu. 8.000 lagunek baino gehiagok eman zuten izena atzoko deialdian.

Lurpetik atera dute 1937an Bilboren defentsan parte hartu zuen gudari bat

BILBO • 1937an Gamiz-Fikan (Bizkaia) kokatutako defentsa lerroko gudari baten gorpua berreskuratu zuen atzo Aranzadi Zientzia Elkar-teak. Herriko biztanle batek eman zuen hobiratzearen arrastoa, duela bi urte: jakinarazi zuen lurperatutako gorpu bat egon zitekeela Elortatu auzotik gertu. Paco Etxeberria izan da lanen buru, eta Eusko Jaurlaritzako zenbait ordezkarik izan dira hoberik ateratzeko ekitaldian. 2003tik, Aranzadik 44 indusketa egin ditu gorpuak hoberik ateratzeko, Jaurlaritzaren laguntzarekin. Orotara 106 gorpu atera dituzte lanotan.

1.541

INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMEN DEIAK BIZKAIAN.

Eusko Jaurlaritzak 900 840 111 telefonoa martxan du indarkeria matxista jasaten duten emakumei informazioa emateko eta laguntzeko. Bada, Bizkaiko zerbitzuak 1.541 dei jaso zituen iaz, duela bi urte baino %12 gehiago. Dei horietatik gehienak indarkeria jasan zuten emakumeek egin zituzten (%68); andreen ingurukoek ere baliatu zuten zerbitzua (%25); eta profesionalak ere deitu zuten (%7).

Hilberriak



**Esther Hernandorena
Otxandorena**

*Zuk emandakoarekin
bidean aurrera goaz
eta gaua argitzen doa!*

*Eskerrik asko, Esther!
Garaipenera arte*

Leitzako Ezker Abertzalea

LEITZA - IRUÑEA, 2019ko ekainaren 9a.



**Ester Hernandorena
Otxandorena**

*Kantu hau nahi dizut
Eman zuri, Herria,
Gu gara iturri zaharreko
Ur berria*



LEITZA - IRUÑEA, 2019ko ekainaren 9a.



**Ester Hernandorena
Otxandorena**

*"Elkarrekin zenbat solasaldi euskaraz,
ikastolaz, gure herri honetaz..."*

*Transmititzen zenuen ilusioa
zure lanean eta lortutakoan zure poza.*

Arazoen aurrean konponbiderako zenuen indarra eta..."

Agur, Ester, gurekin izango zaitugu betirako.

Zure ikastolako lagun kuttunak

IRUÑEA - LEITZA, 2019ko ekainaren 9a.

Eskelak (0034) 943-30 40 30 eskelak@bidera.eus